

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusia,

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuordea

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol saileko zuzendaria

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendari nagusia

Nafarroako Gobernuaren Euskarabidearen zuzendari-kudeatzailea

Euskararen Erakunde Publikoaren Burua

Donostiako Alkatea,

Euskaltzain ohorezko, emeritu, oso, urgazle eta batzordekideak,

Gurekin zaudeten erakunde, elkarte eta euskalgintzaren ordezkariak,

Jaun-andreak,

Egun on

Aspalditik ari da Euskaltzaindia, euskararen Akademia, eguneratze prozesuan murgilduta, hala helburuetan nola baliabideetan. Urrats esanguratsuak izan dira ibilbide horretan euskaltzain berriak sartzea mota desberdinetan: ohorezko, emeritu, oso zein urgazleak. Orobat, finantziario bide egonkorak bilatu dira eta areago, ikerkuntza egitasmoak ere ondu dira, egungo parametroen arabera kalitate eta gizarteratze maila betetzen dutenak.

Gaur Euskaltzaindiak euskararen ikergunea abiarazten du, bertara bildu dituela Donostia hirian zehar sakabanaturik dituen ikertzaile taldeak eta norbanakoak.

Hortaz, Akademiak asmo eta amets zaharra egia bihurtu du eta indartu ere egin du bere lana, betidanik Bilboko egoitzan eta ordezkarietzan ondu duena, Euskal Herriaren lurraldeetan zehar. Hona, bada, ikerkuntza eta gizarte zabalkuntza, euskararen bidez uztartuak eta estekatuak.

Egia esan, Akademia sortzetik bertatik ari da ikerkuntza lanetan. Izan ere, sorreratik bertatik laurogeita hamar urte baino gehiago igaro direnean, beharrezan dihardu, dela ikerkuntza arloan -IKER saila-, dela hizkuntzaren sustatze eta gizarte zabaltzearen arloan -JAGON saila-. Hainbatez, bikoiztasun horrek ematen dio berezko nortasuna euskararen Akademiari, inguruan diren beste hizkuntza akademien aurrean.

Izatez, gaur badira gure artean ikerkuntza egitasmo batzuk, errealitate biziak direnak. Ikerkuntza horrek, bistan da, Akademiaren xede jatorrizkoak ditu helburu eta jomuga. Hainbatez, sorreratik bertatik 93 urte igaro ondoren, berriro ere Euskaltzaindiarekin ditugu hemen, ospakizun honetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernua, lurralde bereko aldundiaren oinordeko. Horiei gehitu zaizkie Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa, Frantziako errepublikari dagokionez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroa Komunitatearen eta Iparraldeko hainbat udal. Era berean, BBK, Kutxa, eta Euskadiko Kutxa eta hainbat pertsona, egunero euren laguntza ematen digutenak.

Egun, hala ere, Akademiak egin beharreko ikerkuntzak aintzat hartu behar ditu, besteak beste, halako ardatzak, ezinbesteko direnak Euskaltzaindiaren moduko erakunde bati galdatu behar zaionaren arabera, berori baita, euskarari dagokionez, erakunde aholku emaile ofiziala:

Lehena da ikerkuntza lan hori modu koordinatu batean egiteko premia, egun ikerkuntza arloan diren unibertsitate, hizkuntzaren industria,

hizkuntza eragile, irakaskuntza, administrazio publiko eta, orokorrean, euskalgintzaren inguruan ari direnekin. Egin ere, azken urteetan Euskaltzaindiak halako hitzarmenak egin ditu horietako hainbatekin, zertarako eta euskararen esparruan sare iraunkorra ehotzeko, euskarari gizartearen bermea ekarriko diona. Horiekin ari gara aspalditik, elkar lanerako hitzarmenak ontzen eta atontzen, euskararen sare soziala arian-arian ehotzeko. Sare hori dugu egunotan arrisku bizian, egoera ekonomikoaren poderioz, horren aurrean, beste behin ere, aldarrikatu behar dugula euskararen inguruko gune erkideak indartzea dakarten bideak.

Bigarrena dator beste ikuspegi batetik, hau da, ikerkuntza lan hori taldeka egitetik, talde horietara biltzen direla hainbat ikertzaile eta aztertzaile. Talde horiek dira garai bateko izen eta sona handiko euskaltzale haien lanari segida eman behar diotenak. Horra Akademiaren beste erronka, eta horretarako ere gehitu zaio Akademiaren barruan, lehenagoko lan moldeari, alegia, osoko bilkuraren eta batzordeen lanari, ikerkuntza taldeen ahalegina, hortxe egon daitekeelako gakoa aurrera egiteko, batez ere, talde horiek diziplinartekoak badira, hizkuntza bera, gizartearen barnean errotua egon eta aditu askoren eginahalak eskatzen baititu.

Hirugarrena dator egun teknologia berriek dakartzaten abantailak profitatzetik, egun guztiz egingarria baita corpus handiak eratzea eta antolatzea, horietan den hizkuntzari buruzko informazioa ukaezinezko oinarria dela hizkuntzaren normatibizaziorako eta gizarte zabalkunderako. Horretan ere, zer esanik ez dago, Euskaltzaindiak gizarteari itzultzen dio, honek ematen dion finantziario publikoa, guztion baliabideekin ontzen dena.

Laugarrena dator Akademiaren baliabide ekonomiko eta finantzazkoen kudeaketa egokiaren aldetik, irtenbide egokiak bilatuz eta emaitzak gizartean islatuz, are gehiago oraingo garai zail eta latzetan. Horretan ere

badabil Euskaltzaindia eta aurki izango du abian bere lehen plan estrategikoa, erakundearen erradiografiarekin batera, egungo inguruabarrei egokitutako kudeaketa-tresnak emango dizkiguna.

Bosgarrena dator beste bide batetik, hain zuzen ere, ezagutza eta jakituria gizarteratzearen aldetik. Nahitaezko zimentarria da hori euskararen normatibizazio arloan erabaki egokiak hartzeko eta bere estatusa normaltzeko gure gizartean.

Ardatz horiek gidari, Euskararen Akademiak egunero dihardu ahalegin bizietan, zertarako eta bateratzeko eskakizun akademikoak eta jendaurreko presentzia euskararen baitan; orobat, erakunde izaera eta euskararen sustapena bultzatzeko, irizpide alderdikoi eta politikoei muzin eginez.

Ardatz horiek aurrera eramateko, Euskaltzaindiak jaso du TOLARE eraikinaren erabilera, Donostiako udalaren aldetik. Lagapen horrek ahalbidetuko du, besteak beste, Gipuzkoan Akademiak dituen talde guztiak bateratzea, Gipuzkoako ordezkaritzarekin batera eta baliabide egokiagoak izatea Akademiaren lanak egiteko zein herritarrei harrera eskaintzeko.

Una nueva realidad, por lo tanto, que reúne los dos parámetros de la actuación de la Academia: el servicio a la sociedad que le rodea a través de su trabajo en el ámbito del euskera y su labor de investigación y difusión social del euskera, con unas nuevas instalaciones que le permiten trabajar de forma adecuada a las exigencias de nuestro tiempo y, de paso, recuperar para esta ciudad un edificio emblemático como es este TOLARE, edificio también en una época de utilidad pública, utilidad que recupera al servicio del euskara y de la cultura vasca.

Horrexegatik, eskerrak eman beharrea gaude. Zerrenda luze honetan has nadin Donostiako udaletik, eta Odon Elorza jauna, alkate ohia, aipatu dezadan, bera izan delako honen hauspoa eta arima, Ainhoa Beola

zinegotzi ohiarekin eta Txuri Aranburu; orobat, Markel Olano jauna, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi ohia; jarrai dezadan agurtzen egungo alkatea, Juan Carlos Izagirre jauna, eta Ahaldu Nagusia, Martin Garitano jauna, horiek ere ahaleginetan jardun dutelako Euskaltzaindiaren alde. Orobat, Espainiako Gobernu eta Zientzia eta Ikerkuntza eta Hezkuntza ministerioak, eta, nola ez, EAJ-PNVren parlamentariak, eurak izan baitira erabakigarri prozesu honetan. Zer esanik ez, eskerrak etxe hau atontzen jardun duten arkitekto eta etxegileei eta Donostiako ordezkariaren arduradunari eta langileari, euren gogo osoa jarri baitute hau aurrera joan zedin.

Hona bada, errealitate berria, Donostia, Gipuzkoa eta Euskal Herria uztartzen dituen euskararen bidez. Jakin ezazue Euskaltzaindiaren izenean, gure eskaintza orokorrarekin batera, berezia ere baduzuela Donostia kultura hiriburua egitasmorako. Ziur gaude etxe honek zerbitzu baliotsuak eman ditzakeela horretan eta, oro har, donostiarren eskuetan jartzeko kultura azpiegitura berri hau.

Izanak izena dakar, hala esan ohi da euskaraz. Horrexegatik izendatu du euskararen Akademiak ikergune berria Luis Villasante izenarekin eta hala onetsi du Tafallan egin duen azken osoko bilkuran. Hartara, euskaltzainburu ohiaren gomuta ohoratzen dugu, bera izan baitzen euskara batua eta ikerkuntza zereginak bultzatu zituen Akademiaren barruan. Gisa horretan, haren izenak aldamenean ditu, bateko, Carlos Santamaria ohorezko euskaltzainarena, horren izena eman baitio Euskal Herriko Unibertsitateak biblioteca berriari eta, besteko, Koldo Mitxelena euskaltzain osoarena, egunero barreiatzen dena Donostiako kulturunearen ekintzaren bidez. Aurrerantzean, bistan da, batera izango dira hiruok gure oroimenean, euskara eta euskal kulturaren inguruan.

Andres Urrutia /euskaltzainburua